

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua martxan jartzeko, kostu batzuk izango ditugu. Gure ideia azaldu dugun bezala, euritako erosoagoak sortzea da. Horretarako lokal edo pabelloi bat beharko dugu. Toki hori nahiko handia izatea komeni zaigu, izan ere, departamentu desberdinetan banatuko dugu: finantza departamentua, marketing departamentua, erosketa departamentua... . Departamentu bakoitzak esparru bat izatea komeni da. Lokal handi baten bila gabiltzanez, ez zaigu axola lokal hori zaharkituta egotea, obra batzuk egingo ditugu berrizteko (margotu, argi eta uraren instalazio berriak jarri, altzariak erosi...)

Beste alde batetik, lokala edo pabelloia garbitzeko eta mantentzeko beste enpresa baten laguntza beharko dugu, garbitzaileak gestionatzen dituen enpresa bat eta mantentze lanak aurrera eramango dituen enpresa bat.

Proiektua martxan jartzeko, lehengai batzuk ere erosi beharko ditugu: oihalak, burdin zatiak, belkroak, haria... Horrez gain, proiektua ekoizteko makinak ere beharko ditugu, esate baterako, josteko makinak, telak mozteko makinak... . Gure helburua, kate lanean aritzea da, horrela produktu asko ekoizten dira, lan esfortzu gutxiren truke.

Produktua bezeroen etxeetara banatzeko, banaketa enpresa (DHL, UPS...) bat kontratatu beharko dugu. Guk produktua ekoiztiko eta erosi denaren jakinarazpena iritsiko zaigu. Orduan, produktua etxera bidaliko diegu bezeroei.

Bezeroekin harremanak egiteko eta gure enpresa ezagutzera emateko ordenagailu pare bat (portatil bat eta mahi gaineko ordenagailua) eta mugikor bat beharko genuke. Sare sozialak sortu, web orrialde bat sortu... horrelako ekintzak egingo ditugu enpresa ezagutzera emateko.

Enpresan langile guztiek izango dute soldata berdina, baina soldata hauek aldakorrak izan ahalko dira momenturen batean, hots, lortutakoen emaitzen araberakoa; hilabetean irabazten duguna eta hilabeteko kostu guztiak ordaindu ondoren geratzen zaigun diru kantitate hori langile guztien artean banatuko da.

Hurrengo taulan zehaztuko dugu, hilabeteko eta urteko kostu orokorrak:

GASTUAK	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
Lokala, pabelloia...	Handia da, esparru desberdinak desberdinu ditugu.	8.333,33 €	100.000,00 €
Lokalaren segurua	Hilero ordaindu beharrakoa. -Istripuak gutxitzeko...	200,00 €	2.400,00 €
Lokalaren obra	GUZTIRA = 7000€ -Instalazio elektrikoa: 2500€ -Iturgintza: 1500€ -Margoketa: 1000€ -Altzariak: 2000€  Hau guztia bi urtera finantzatua, interesik gabe	291,67 €	3.500,00 €
Lehengaiak	Tela zatiak (kolore desberdinak) Burdin eta metal zatiak Belkroak ...	416,67 €	5.000,00 €
Makinak	Makina desberdinak --> produktuak ekoizteko eta lana errasteko	100,00 €	1.200,00 €
Banaketa enpresa	Produktua etxeetara eta dendetara heltzeko ardura izamgo dutenak.  30€ bidalketa bakoitzeko.	250,00 €	3.000,00 €
Mugikorra eta ordenagailuak	GUZTIRA =2110€ -Mugikorra: 200€ -Ordenagailua: 900€ -Portatila: 1010€	175,83 €	2.110,00 €
Soldatak	Aldakorrak dira, baina hasiera batean estimatzen da nahiko baxuak izatea.  20 langile izango ditugu gutxi gora beherea	1100€/langile	22.000,00 €
	<b>Guztira</b>	<b>10.117,50 €</b>	<b>139.210,00 €</b>